

Osoko bilkura

Bilbon, egoitzan, 2017ko abenduaren 22an.

Batzar-agiria

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Videgain, Xarles, euskaltzainburuordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Iñigo, Andres,
Irazu, Jose, "B. Atxaga",
Kaltzakorta, Jabier,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Sagarna, Andoni,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi eta
Zabaleta, Patxi.

Miriam Urkia,
Mujika, Alfontso,
Osa, Erramun eta
Zabaleta, Joseba,
zegozkien gaietan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Aurelia Arkotxa, Miren Azkarate, Joseba Lakarra, Beñat Oihartzabal, Patxi Salaberri, Joan Mari Torrealdei eta Mikel Zalbide.

Ahalak: Aurelia Arkotxak ahala Xarles Videgaini; Miren Azkaratek ahala Miren Lourdes Oñederrari; Jabier Kaltzakortak ahala Andres Urrutiari (iritsi bitartean); Joseba Lakarrak ahala Aurelia Arkotxari; Beñat Oihartzabalek ahala Miren Azkarateri; Miren Lourdes Oñederrak ahala Joseba Lakarrari (iritsi bitartean); Patxi Salaberri ahala Andres Urrutiari; Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Batzarra, 2017ko abenduaren 22an, ostiralean, egin da Bilbon, egoitzan.

A. Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoen zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatu ondoren, abenduko Osoko bilkurari hasiera eman zaio.

Aztergaiei ekin aurretik, E. Osa idazkariordeak aditzera eman du "Euskaraldia" ekimenaren aurkezpena egiteko, Eusko Jaurlearitzako, Nafarroako Gobernuako eta Euskaltzaleen Topaguneko ordezkariak batzar-aretoa sartuko direla, 10:30ean. Ondoren, 11:00etan, A. Urrutia euskaltzainburuak, "Euskaraldia" ekimenari Euskaltzaindiak sostengua adierazteko, agerraldia egingen du hedabideen aurrean.

1. Osoko bilkurako (2017-11-24) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz

Oharrik ez da jaso. A. Urrutia euskaltzainburuak ahoz oharren bat egin nahi den galdetuta, A. Iñigok hitza hartu eta atalen zenbakien hurrenkeran akats txiki bat dagoela aditzera eman du.

Hori zuzendu ondoren, bestelako oharrik dagoen galdetuta, ez da egon. Ondorioz, 2017ko azaroaren 24ko Osoko bilkuraren bilera-agiria onartu da.

2. Exonomastika. “Errenazimentuko pertsona-izenak”. Jasotako oharra aztertu eta erabakiak hartu

Gaia jorrazteko A. Mujika Exonomastika batzordearen idazkaria bilera-aretorara sartu da. Gogorarazi duenez, 2017ko azaroaren 24ko Osoko bilkuran, “Errenazimentuko pertsona-izenak” araua (urriaren 6ko Osoko bilkuran aurkeztua) bi aukera edo gehiago duten 14 pertsona-izenen kasurako proposamen moldatua aurkeztu zuen Exonomastika batzordeak. Eztatuidatu ondoren, behin betiko zerrenda aurkeztea eskatu zion Osoko bilkurak batzordeari.

Horiek horrela, Exonomastika batzordeak, kasu horiek banan-banan aztertu ondoren, honela aurkeztea proposatu du: **Eckhart von Hochheim** (izengoitia: **Eckhart Maisua**) / **Gonzalo Fernández de Córdoba** (izengoitia: **Kapitain Handia**) / **Domenikos Theotokopoulos** (izengoitia: **Grekoa**) / **Miguel de Cervantes** (izengoitia: **Lepantoko besomotza**) / **Luis de León** (ohiko izendapena: **Frai Luis de León**) / **Lineo** (jatorrizko izena: **Carl von Linné**) -**Linnaeus** forma latinizatua bizidunen nomenklaturan erabiltzekoa da- / **Andrea Alciati** (**Alciati** ere deitua) / **Ameriko Vespuzio** (jatorrizko izena: **Amerigo Vespucci**) / **Julio Zesar Eskaligero** (jatorrizko izena: **Giulio Cesare Scaligero**) / **Martin Lutero** (jatorrizko izena: **Martin Luther**) / **Laurendi Bikaina** (jatorrizko izena: **Lorenzo Medici**) / **Paolo Veronese** -**Paolo Veronakoa** (**Veronese** = Verona hirikoa)- / **Tomas Kempis** -**Tomas Kempengoa** (a **Kempis** = Kempen hirikoa) / **Joan Jainkoarena, San**.

<**Laurendi Bikaina** (jatorrizko izena: **Lorenzo Medici**)> kasua eztabaidatu da, **Laurendi Bikaina** forma ez ote den ezezaguna eta jatorrizko formatik urrun gertatzen. Ikusi da, dena dela, inguruko hizkuntzetan egokitzen dela (es **Lorenzo de Médici** / **Lorenzo el Magnífico**; fr **Laurent de Médicis** / **Laurent le Magnifique**; en **Lorenzo de' Medici** / **Lorenzo the Magnificent**; ca **Llorenç el Magnífic**; it

Lorenzo di Piero de' Medici, detto Lorenzo il Magnifico). Etabaidatu ondoren, Exonomastika batzordeak urrian proposatutako moldean jartzea erabaki da: <**Lorenzo Medici** edo **Laurendi Bikaina**>.

Aldaketa hori egin ostean, Osoko bilkurak araugaia onartu du.

Aztergaia jorratu ondoren, bilera-deian 4. puntu gisa ageri den "Euskaraldia" egitasmoaren aurkezpena egin da Osoko bilkuran.

3. "Euskaraldia", aurkezpena

Gaia jorratzeko, batzar-aretora sartu dira Bingen Zupiria Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikarako sailburua, Mikel Arregi Nafarroako Gobernuko Euskarabideko zuzendari kudeatzailea, Miren Dobaran Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea, Estibalitz Alkorta Eusko Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko zuzendaria, Elena Laka Euskaltzaleen Topaguneko lehendakaria eta Iñaki Martínez de Lagos Euskaltzaleen Topaguneko Komunikazio arduraduna.

B. Zupiriak hitza hartu eta Iñigo Urkullu Euskadiko lehendakariaren izenean euskaltzainak agurtu ditu. Ondoren, eskerrak eman dizkio Euskaltzaindiari "Euskaraldia" ekimenaren berri buruz buru emateko aukera eskaintzeagatik, berak ordezkatzeko duen herri-erakundearentzat garrantzitsua baita "Euskaraldia" ekimenean Euskaltzaindia bidelagun izatea; izan ere, herri-erakunde horrek legetzaldirako zehaztu duen agenda estrategikoaren inguruabarrean kokatu du "Euskaraldia". Nabarmendu duenez, herri-erakundeen eta gizarte zibilaren artean helburuak, egitasmoak eta jarraibideak partekatzea garrantzitsua da, besteak beste, euskarari eta euskal kulturari ikusgarritasun are handiagoa emango bazaie.

Ondoren, E. Laka Euskaltzaleen Topaguneko lehendakariak hartu du hitza. Honak, ekimenaren nondik norakoak azaldu ditu. Egitasmoak herritarren hizkuntza ohituren aldaketan eragitea bilatzen du. Gogorarazi du egitasmoaren lehenbiziko urratsak Lasarte-Orian egin zirela. Bertan, euskaraz zekitenak eta euskaraz hitz egiteko zailtasunak izanda ere, ulertzeko gai zirenak harremanetan jarri ziren. Orain aurkezten den proposamena antzekoa da, 2018ko azaroaren 18tik abenduaren 3ra bitartean egingo da euskal lurralde guztietan. Herriz herri zabalduko den ekimenean, "Ahobizikiak" (euskara ulertu baina hitz egiteko zailtasunak dituztenei euskaraz hitz egiteko prest daudenak) eta "Belarriprestak" (euskaraz hitz egiten duenari entzuteko prest daudenak, nahiz eta erdaraz erantzun) egongo dira. Elkarren arri-muan, euskarazko elkarriketei eutsi ahal izatea da asmoa, ohituren aldaketan eraginez.

M. Arregi Euskarabideko zuzendari kudeatzaileak euskal lurralde guztietako herri-erakundeen arteko lankidetzaz azpimarratu du, eta gogorarazi du halako egitasmoak aurreikusita daudela berak ordezkatzeko duen gobernuak onarturik duen Plan Estrategikoak finkatutako jarraibideetan. Era berean, euskararen ezagutzaren eta erabileraren artean dagoen aldea txikitzeko halako egitasmoen garrantzia eta askotariko eragileen arteko lankidetzaz azpimarratu ditu.

Gai honekin amaitzeko, I. M. de Lagos Euskaltzaleen Topaguneko Komunikazio arduradunak hitza hartu eta egitasmoa teknikoki nola antolatuko den azaldu du. Aditzera eman duenez, egitasmoaren jarraipena egiteko batzorde bat eratu dute herri-erakundeek eta Euskaltzaleen Topaguneak. Egitasmoan parte hartzea erabakitzen duten herri eta auzoetan batzordeak eratuko dira (udalen eta gizarte eragileen osareekin) eta, batzorde hauetan parte hartzen dutenei, antolakuntzakoek jarraibideak eskaintzen dituen eskuliburua eman eta prestakuntza eskainiko diete. Azkenik, aurreratu du egitasmoak beste eragile eta eremu batzuk kontuan dituela, eta 2019. urtean segida izango duela.

A. Urrutia euskaltzainburuak gogorarazi du Euskaltzaindia euskal gizarteari zerbitzua emateko sortu zela eta, testuinguru horretan, Euskararen Akademia betidanik euskalgintzaren parte aktiboa izan dela. Horiek horrela, aditzera eman duenez, Euskaltzaindiak helbururik behinena izan du, eta oraindik ere badu, euskararen batasuna. Horretan dihardu Euskararen Akademiak, baina horrekin batera, historian zehar, hainbat ekimen ere burutu izan ditu, gerora euskal gizarteak bereganatu dituenak, hala nola, Bertsolari Txapelketa Nagusiaren lehen antolakuntza, UZEI eta EIE hauspotzea, ikastolen mugimendua bultzatzea, helduen euskalduntze alfabetatzea eta abar. Hastapenetik, euskalgintzaren esparrurik esanguratsuenak bultzatu ditu Euskaltzaindiak, beti herriaren beharrezanez, adi, memento latzenetan ere bai.

Ibilbide eta engaiamendu horrekin bat etorritik, Euskaltzaindia "Euskaraldia"-ren helburuekin bat datorrela azpimarratu eta euskal herritarrei dei egin die ekimean parte hartze aktiboa izan dezaten. Halaber, beren-beregi dei egin die euskal hitzunei euskaraz jarduteko nahikoa gaitasun ez dutenekin abegikor eta esku zabal joka dezaten, denon artean euskararen bidean urratsak egiteko modua izan dezagun.

Azalpenen ondoren, hedabideen aurrean agerraldia egiteko, Osoko bilkura eten egin da.

Osoko bilkurak segida izan du, 11:40 direnean.

4. Exonomastika: “Munduko mitologia (Antzinatekoa izan ezik)”. Jasotako oharrak aztertu eta erabakiak hartu

Azaroaren 24ko Osoko bilkuran aurkeztu zen araugaia, eta abenduaren 2ra arteko epea jarri zen oharrak egiteko. P. Zabaleta euskaltzainak proposamen hau egin du: *Buda*, *Zoroastro/Zaratustra* eta *Brahma* zerrendatik kentzea, erlijio ezagun eta zabalduen jainkoak direlako lehena eta hirugarrena eta *Zaratustra/Zoroastro* berriz, historiako eta pentsaeraren pertsonaia garrantzitsua, ez jainko-izena.

P. Zabaletaren oharra aztertuta, Exonomastika batzordeak oharraren proposamena onartu, eta proposatu du, batetik, mitonimoak eta antroponimoak zerrenda berezietan jartzea, eta, *Buda* (budismoaren sortzailea) eta *Zaratustra/Zoroastro* (zoroastrismoaren sortzailea) izenekin batera, -zerrenda hain txikia ez izateko-, beste hiru pertsona-izen hauek sartzea: *Konfuzio* (konfuzionismoaren sortzailea), *Laozi* (taoismoaren sortzailea) eta *Mengzi* (konfuzianismoaren filosofo nagusia Konfuzioren ondoren): eta bestetik, araugaiaren izena aldatzea eta honela izendatzea: “Munduko mitologiako zenbait izen eta Ekialdeko erlijio-sineskeren arloko zenbait pertsona-izen”.

P. Zabaletak ontzat eman du proposamen berria. Ondorioz, aldaketa hori eginda, onartu da araugaia.

5. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Eguneratze lanak eta prozedura

Puntua jorratzeko, Miriam Urkia “Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta Adibideak” lantaldeko buru eta Euskaltzaindiaren Hiztegia batzorde ahaldunduaren kidea batzar aretora sartu da. A. Sagarnak batzorde ahaldunduaren berri eman du. Hasteko, 2017ko uztailean aurkeztutako lan-prozedura gogorarazi du.

M. Urkiak 2017an batzorde ahaldunduari helarazitako materialaren berri eman du (guztira, 451 forma izan dira), bereziki gaika landu diren aztergaiena: familia-ereduen aldaketak eraginik sortu diren egoera berriak definizioetan moldatu, genero-berdintasunaren izenean definizio batzuk aldatu, irudi geometriko / geometria-irudi / figura geometriko / geometria-figura bateratu, gainalde vs gainazal,

batek osatua vs batez osatua, definizioetan adierak osatu, jokatu / deklinatu eta deklinabide-atzizki / kasu-marka, joera / doktrina / jarrera / mugimendu / estilo, eta irain-hitzen definizioak bateratu. Horiekin batera, erabat berrantolatu diren sarrerak (hartu, jantzi, ar eta eme) eta Euskara Batuaren Eskuliburuko batzorde suntsikorraren oharren ondorioz egin diren aldaketak aurkeztu dira.

6. “Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak” batzorde ahaldundua- ren oharrak

A. Sagarnak eta M. Urkiak nabarmendu dutenez, batzorde ahaldunduko kideek egingako oharrak aztertu dira, erredakzio-taldearekin batera, horien gaineko ohar-
rak edo proposamen berriak egin dituzte. Horrela, erabateko adostasuna duten
ohar batzuk besterik gabe ontzat eman dira, baina ez guztiak. Osoko bilkuran
onartutakoen zerrenda banatu da, eta ohardunak urtarrileko bileran aurkeztu eta
eztabaidatzeko utzi dira -P. Uribarren euskaltzain osoak eskatu duen moduan, par-
te-hartzea ahalik eta zabalena izan dadin-, 2017ko uztailen erabakitako lan-proze-
durari eutsiz.

7. Esku artekoak

7.1. Bilkurak. Bi bilkuraren berri eman da. Batetik, urtarrilaren 26an Eus-
kaltzaindiaren Osoko bilkura Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian egingo da,
10:00etatik aurrera. Bestetik, urtarrilaren 26an, 2017. urtean hil diren euskaltzainak
gogorarazteko, Ageriko bilkura Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian egingo
da.

8. Azken ordukoak

8.1. Bilboko Metroa. X. Videgain euskaltzainak kezka agertu du Bilboko Me-
troaren geltokien euskarazko izenak-eta eguneratzeko diru-kopuru handia baliatu
eta horrek euskarari kalterik egingo ote dion.

Azaldu zaio Bilboko Metroak geltoki berriak dituela eta horregatik panel be-
rriak egin behar dituztela. Ondorioz, Bilboko Metrokoek geltoki berriak ireki arte
itxaron dute, bide batez, euskaraz gaizki zeuden toponimoak-eta zuzentzeko. In-
guruabar horretan, B. Atxaga euskaltzainak euskarazko itzulpenen kalitatea zain-

du beharko litzatekeela azpimarratu du, nonahi agertzen baitira euskarazko hala moduzko itzulpenak.

Eta beste aztergairik ez dela, 13:40 direnean Osoko bilkura bukatutzat eman da.

Euskaltzainburua,
Andres Urrutia

Idazkaria,
Xabier Kintana